LAS SINSOMBRERO



Lyceum Klubeko Emakumeak.

20ko hamarkadan, **emakume artista, idazle eta pentsalarien talde** bikain batek beren gizonezko kideen espiritu abangoardista, urratzaile eta. intelektual bera partekatu zuen; haiekin batera prestatu eta lan egin zuten. **Haien lanek arteak modernizatzen lagundu zuten, eta emakumeen aintzatespen sozial eta kulturalerako bide berriak ireki zituzten.**

Sortzaileak, idazleak eta artistak izan ziren,
baina baita kritikariak, itzultzaileak eta editoreak ere,
eta **beren garaiko bizitza intelektual eta kulturalean aktiboki parte hartu zuten**.

Hainbat esparrutatik, **arteak berritzen eta emakumeek kulturan presentzia eta aintzatespen handiagoa izateko gune berriak irekitzen lagundu zuten**.

27ko belaunaldiko emakume **idazleek elkarri laguntzeko sare eraginkorra sortu zuten Lyceum Clubaren eta gutun-truke oparoaren bidez**.

Erbesteak eta gerraosteko zentsurak haien arrastoa ia guztiz ezabatu zuten arren, **egungo kritikak haien ondarea berreskuratu du**, eta herritarren artean aditzera eman da “Las sinsombrero” izeneko dokumentalari esker (Balló, 2015).